

Hizkuntzaren kalitatea

(Language quality)

Larringan, Luis M.

Euskal Herriko Unib.

Filologia, Geografia eta Historia Fak.

Euskal Filologia Saila

2111 Posta Kutxa

01080 Vitoria-Gasteiz

BIBLID [1137-4446 (2000), 11; 65-76]

Zein dira hizkuntzaren kalitatea zehazteari datxezkion arazoak? Zer da "hizkuntzaren kalitatea" deitzen dugun zera hori? Nola ikertu hori? Kalitatea, ez egoera bezala baina bai funtzionamendu bezala, zerbait "erlatibo", "ireki" eta "dinamiko" bezala ulertzeko beharra azpimarratzen du egileak. "Moduluen" arabera ezarri beharra dago, horren erabilera bereizi gabea ere saihestu behar delarik. "Estrategia diskurtsiboaren" nozioa proposatzen da baliozko baliabide gisa, ikuspegi epistemologiko eta deskriptibotik.

Giltz-Hitzak: Kalitatea. Ebaluazioa. Gramatika eta erabilera. Kodearen erabilera. Multzo diskurtsiboa. Komunikazio-gaitasuna. Testuingurua.

¿Cuáles son los problemas asociados a la determinación de la calidad de la lengua? ¿Qué objeto es eso que llamamos "calidad de la lengua"? y cómo investigarlo? El autor subraya la necesidad de concebir la calidad no como un estado, sino como un funcionamiento, como algo "relativo", "abierto" y "dinámico". Debe establecerse según "módulos", y evitar un empleo indiscriminado de la misma. Se propone la noción de "estrategia discursiva" como herramienta válida desde un punto de vista epistemológico y descriptivo.

Palabras Clave: Calidad. Evaluación. Gramática y uso. Uso de código. Conjunto discursivo. Competencia comunicativa. Contexto.

Quels sont les problèmes associés au moment d'apprécier la qualité d'une langue? Qu'appelons-nous "qualité de la langue"? Et comment l'étudier? L'auteur souligne la nécessité de concevoir la qualité non comme un état, mais comme un fonctionnement, comme quelque chose de "relatif", "ouvert", "dynamique". Il doit être établi selon des "modules", et doit éviter l'emploi abusif de celle-ci. On propose la notion de "stratégie discursive" comme outil valable d'un point de vue épistémologique et descriptif.

Mots Clés: Qualité. Evaluation. Grammaire et usage. Emploi de code. Ensemble discursif. Compétence communicative. Contexte.

AURKEZPENA

Nire esatekoak bost zati nagusi izango ditu. Lehenengoan, sarrera gisa, gai honen gaineko diskurtsoaren hari nagusiak gogoratuko ditut. Ondoren, hizkuntzaren kalitatearen problematika orokorraren gainean kontuan izateko zenbait alderdi aipatuko ditut. Hirugarren puntuan gai honetaz ditudan gogoeta-multzoa (hipotesi-multzoa) eskainiko dut. Erreflexio horiek hizkuntzaren kalitatearen izaerari eta haren ikerbideei buruzkoak dira. Laugarrenean, hitzaldi-estrategia nozioa proposatzen da kalitatea ikertzeko. Azkenik, bostgarren puntuan, zenbait ondorio aurkezten da.

1. EUSKARAREN KALITATEAREN GAINEKO DISKURTSOAREN HARI NAGUSIAK

Aspaldion asko esan eta idatzi da hizkuntzaren kalitatearen gainean, bereziki euskararen kalitatearen gainean. Eskuartearen dugun gaia zein korapilotsua eta konplexua den antzemateko, idatzi horietara jo besterik ez dago. Eta konklusioa ia beti berbera izan da: egitura okerrak eta gaiztoak, hitzeordenarik eza (“*noa Bilbora*”, konstrukzio berriak (“*bazindut*”, “*a ke bai*”, “*aber*”, ...”, “*osea que*”, “*ere etorri da Peru*”, “*Peru esan du...*”)... zerrenda luza daiteke. Iritzia da euskara degeneratu bat sortzen ari garela: ez aditzik, ez joskerarik, ez azenturik, ez lexikorik; miraritzat jo beharko genuke –esaten da– esaldi minimoki luze eta konplexuak zuzen amaitzea; oro har, euskara maxkala, interferentzia ikustesinez josia. Euskal senarik eza nabaritzen da. Euskara komunikakorrago batera ezeze, askotan hizkuntzaren erabilera “gramatikal zuzen”-era ere ez bide gara iristen. “Honako edo halako idazmoldeek eta hitz-ebakerek –ikus-tezinak eta euskal senaren aurkakoak– dagoeneko bere lekua egin dutela...”. Hutsen, hankasartzeen, akatsen zerrenda nahi adina luza liteke datuez, diskurtsoa ezagutu ahala.

Kalitate-(ezaren) iturriak seinalatzerakoan, guztiak ez datoz bat; izan ere, gramatikaltasunaren gaintetik, desadostasun bat baino gehiago agertzen da. Horrela, kalitate-iturriak, zutabeak eta erreferentziak ematerakoan, idazle eta “kalitate neurtzaile” batetik bestera alde handiak ageri dira eta inoiz neurtzaile bakoitzak aldaera nabarmenak ageri ditu, filiak eta fobiak barne. Nolanahi ere, “*diskurtsoa*” berbera da, kalitaterik ezarena, kalitate eskasarena, euskararen egoera prekariora, ...

Ezin uka diskurtso “katastrofista” baten aurrean gaudela. “Katastrofista” esatea ez da ahoberokeria edo exagerazioa, guk puztua. Esaterako, honelakorik ere irakurri ahal da: “Bada aurrera egin ordez atzera egin duen euskal zaharrik ere. Erdal-euskara moduko pidgin baterantz bideratzeko arriskuan gaude... Eta hori egoerarik onenean, zeren txarrean erdara salto egiten omen da zuzen-zuzenean”. “Euskañol” antzeko zebait sortzen ari gara. “Hizkuntza traketsa, mordoilua, itxuragabea, euskararen senez kontrakoa” antzeman daiteke, egungo hitzunik ez dakite mintza-molde jasoak erabiltzen, ez digu hizkuntz oparorik, aberatsik, emankor-funtzionalik eskaintzen, euskaldun motel erdipurdikoak, ele-erasaleak ... ari gara sortzen. “Euskara eskolaratzea lortu dugu. Oso ondo. Baina zer arraioa gertatzen da, haurtzaro eta gaztaro guztia euskaraz eginik, azkenean hain hizkera degradatua nagusi izateko? Ikerketa bat egin daiteke. “Irakurketa oso simple bat (...) burutuz gero, izuturik gelditu da (ikerzailea) euskara eskolatua edo eskolatuen euskararen deskonposizio brutalaz”. Eta antzeko balioespenak entzuten eta irakurri ahal ditugu. Argi gorri guztiak piztuta daude, eta alarmak joka ari dira.

Euskara batuaren ikuspegitik eginiko balioespenak ere bide beretik doaz.

Ezin ahantz, bestalde, aurreko diskurtsoa hedapenaren eta politika linguistikoa egiten dutenen diskurtsoarekin kontraesanean dagoela. Diskurtso honen arabera, sekulako aurrera-

pausoak eman omen dira euskararen alorrean: komunikazio-bideetan, liburugintzan, eskolari-zazioan, itzulpengintzan, ... Gure planteamendu eta arrakastaren berri hor-hemen haizetara-tzen dihardugu: ez dakit zenbat mila euskaldunberri egin dugula, euskaldun zaharrak alfabetatzen ari garela, Eskal Herria euskaltegi bihurtu(ko) dugula, ez dakit zenbaitek lortu duela euskara ziurtagiria... Gure hizkuntz politikek, hutsak-huts, aurrerabide arrakastatsua egin duela esaten da.

Ikus daitekeenez, batzuek oskarbia aldarrikatzen dute –arinegi?– euskararen zeruetan; beste batzuek, lainoetarako joera nabaritzen dute gure goialdeetan. Beste jende molde batek uste du –esplikazio gisa edo– “erakundeetatik etorri zaizkigun zifrak kantitatez areago kezka-tuak daudela kalitatez baino eta bien arteko oreka lortzea derrigorrezkoa zaigula arrakasta faltsu baten tranpan erori eta ito nahi ez badugu”.

Gu ere ez garaitsuak, eta ez dago euskararen egoera eta errealitate hori ukatzerik. Nolanahi ere, hurbiltze ikuspegia aldatu beharra dagola uste dugu eragozpen guztien gain-azpitik aurreratuko bada. Alde batetik, salaketa hutsa eroso bezain alferrikakoa (antzua) iru-ditzen zaigulako; bestetik, deskripzio horretan analisi-puntu zehatzagoak falta direlako.

Adierazpenak adierazpen eta ikuspuntuak ikuspuntu, argi dago derrigorrezko dela kali-tatearen egitura/problematika orokorra –alderdi desberdinak guztiak– kontuan hartzea hiz-kuntzaren kalitatearen definitzaileek eta arduradunek, kalitate horren fundamenduak eta ezaugarriak azterturi, jarritako helburuen eta lortzen denaren artean kontraesanik egon ez dadin. Derrigorrezkoa da baita ere kasuistika hutsa saihestea.

2. HIZKUNTZAREN KALITATEAREN PROBLEMATIKA OROKORRA EDO ALDERDI DES-BERDINAK

Hizkuntzaren kalitateari buruzko problematika orokorra lau zutabe nagusitan bil dezakegu:

1) Kalitatearen izaerari edo nolakotasunari buruzko auzi-arazoak. Hona argitu beharreko zenbait kuestio: Emaizaz ala prozesuaz ari gara? Hizkuntzaren kalitate hori zerbait egonko-rra, modularra ala eskalarra dugu? Kalitate bat ala gehiago dugu: duina, ona, goi-mailakoa? Hots, bakarra ala anitza? Hizkuntza mintzatuaren eta idatzizkoaren kalitatea batbera ote?

2) Kalitate ezartzailearen inguruko problematika. Zein da “kalitate ezartzailearen” fun-tzioa: errebisatzea, zuzentzea edota ebaluatzea? Zeintzuk dira haren asmoak, beharrak eta balioespenak? Kalitate kontu honetan, zer rol dute hartzaileek eta bezeroek? Zer publikoak? Zer erakundeek? Eta zein erakundeek? Euskaltzaindiak? Euskara Batzordeak? Propio osatuta-ko batzorderen batek? Nori dagokio kalitatearen gidari izatea? Ezartzaile horrek ba al du kali-tate eredurik?

3) Parametroak. Eta kalitateraren adierazleak. Parametro bakarra dugu ala ugariak? Esaterako, gramatika arauak betetzea; Euskaltzaindiaren arauak betetzea, ... Irakurgarritasuna? Komunikagarritasuna? Erraztasuna? Erregistroak kontuan hartzea? Estiloa? Aurkezpena? Ortografia? Tonuera? Ba al dago parametro horiek hierarkizatzerik? Errebisio guztietarako bertsuak –eta mugiezinak– dira ala aldakorrak? Zer pisu dute testu-generoek eta diskurtso-motek?

4) Kalitatea erabakitzeke erabilitako metodologiaren problematika. Ebaluazioa nolatan egiten da: partzialki eta zatika? Modu holistikoan eta orotara ala osagaiz-osagai? Nolatan iharduten da kalitatea erabakitzeke? Zer-nola erabakitzen dira akatsak, hankasartzeak, eska-

siak, gabetasunak, idiolektoak eta beste zenbait aldaera? "Hutsak" zelan kontatzen dira, automatikoki, ...? Ba al dago horien saikapenik eta zerrendatzerik egiterik? Noiz da "urratu" bat parkaezina, noiz grabea, noiz arina, noiz pasatzekoa? Zer garrantzia du gramatikak erabaki horretan? Zer estilo-kontuek? Zer testu-generoek edota diskurtsoek? Zer komunikagarritasunak?

Gure artean eta euskararen kalitateari buruz emandako erantzun metodologikoak nahiko partzialak izan dira. Batzuen ardurak linguistikoak izan dira (zuzentasun gramatikalaren arabera erabaki da kalitatea); beste batzuek, alderdi estilistikoetan (idatz tankeran, espresaeretan) egin dute arreta; bestetazuek, estandarizazioari begira epaitzen dute kalitatea. Oso gutxitan informatzen da alderdi diskurtsiboez, sozio-profesionalerik, hizkuntza praktikatzeko moldeez, ... Esan nahi dut oso gutxitan erantzun dutela **estrategia** terminotan. Puntu hau geroago jorratzeko aukera izango dugu.

3. HIZKUNTZAREN KALITATEARI BURUZKO GURE HIPOTESI-MULTZOA

Gaia zabalegia denez, ezingo dugu, jakina, bere osotasunean arakatu. Beraz, nire gogoetako-multzoari honako bi helburuok jarri dizkiot: a) batetik, hizkuntz kalitatea zer objektu mota den argitzen ahaleginduko naiz, hots, kalitatearen nolakotasuna zehazten; bigarrenik, hizkuntzaren kalitatearen ikertzeko proposamen batzuk egin gura ditut.

Hasteko, badaezpada ere ohartarazi beharko nuke:

– hizkuntza kontuetan jarrera normatibistak isats luzea izan ohi duela, anitz aurpegitako munstruoa dugula. Esan nahi dut, maila onekoa omen den euskararen (hizkuntzaren) atzean ideologia gorde daitekeela, ezartzailearen jarrera ideologikoa hain zuzen, eta horrelako jokatibideek egoera eta erreferentzia zailak sortzen dituztela.

– Hiztun arruntak –eta erdipurdikoak– beti ere hiztun onaren eta gorenaren kontraste modura –ispiluarena eginez– funtzionatzen duela, besterik badirudi ere.

– Euskarararen kasuan, hizkuntza "neurtzaileei" beste gauza bat ere eskatuko nieke: negarrak utzi eta usteon izatea; eramankizunak utzi, eta eraman oneko izatea. Badirudi gurek ez direla garairik asebeteenak.

Baina gatozen gure hipotesi-multzoa (gogoeta-multzoa) erakustera.

Kalitatea zerbait "indiskriminatua" izanez gero, hau da, kalitatea zer, zenbat, norentzat, zertarako, etabar zehazten ez bada, engainatu egiten da erabiltzailea, eta neurritz kanpoko erantzukizunak leporatzen dizkio.

Hizkuntzaren kalitatea ez da soilik egoera bat, funtzionamendu bat baizik, eta beti ere nozio "erlatibo", "irekia" eta "dinamikoa" dugu. Gure ustetan, "garbitasuna", "hondamena", "txukuntasuna", "**kalitatea**" gisako adierazgarriek, ez dute balio absoluturik/borobilik eredu jakin bati alderatuz ezik.

Egun gero eta gehiago hedatzen ari den iritziari jarraiki, guk ere uste dugu hizkuntzarten kalitatea **modu espezifikoa**n eta erabileren artean **bereizgoak** eginik erabaki behar dela. Kalitatea, azken batean, zerbait **modularra** eta **modulagarria** dela uste dugu. Abiaburu honi jarraiki, batetik, hizkuntz kalitatea erabakitzeko modulo batzuk aurkeztuko ditugu, eta bestetik, komunikazio egoera zehatz bakoitzean zer hizkuntz molda-moldek mugatzen duen erabiltzailea (hiztuna) antzemateko **diskurtso-estrategia(k)** kontzeptua baliatzea proposatzen dugu. **Diskurtso-estrategia, hitzaldia-estrategia, berbalitate-tramoia, diskurtso-erakuntza** ("formations

discoursives”) nozioak baliokideak ditugu. Ondorengo lerroetan eta bereziki 4. puntuan, nozio horren balio epistemologikoa eta deskriptiboa gehiago zehazteko aukera izango dugu.

3.1. Hizkuntzaren kalitatatea ikertzerakoan, lehenbizi hizkuntzaren funtzionamoldea kontuan hartzea komeniko da. Hizkuntzaren funtzionamenduari dagokionean, lau erabil-eremuri –eta lau gaitasun– bereiz daitezke: batetik, **ulerkuntza vs ekoizpena** ardatza dugu; bestetik, **ahozkoa vs idatzia**.

Lau erabil-eremu horiek –trebetasunak– “**elkarrekiko diferenteak eta espezifikoak**” direla baieztatu dezakegu. Ohar bedi, dena den, bereziak direla esateak ez duela esan gura lau esparruok bateraezinak direnik.

3.1.1. EZAGUTZA-PSIKOLOGIAREN ARABERA, PROZESU KOGNITIBO DESBERDINAK DAGOKIO ESPARRU BAKOITZARI, ZEINI BERA

Ez gara gehiegi luzatu alderdi honetan. Nahi duenak jo beza bibliografiara (E. Esperet (1990), M. Charolles (1986), M.J. Gremmo, H. Holec (1990)).

Lan horietan ekoizpenari eta ulerkuntzari dagozkien prozesu kognitiboen berri ematen da, eta prozesu horien desberdintasunaren nondik-norakoa argitzen.

3.1.2. ZEREGIN PRAGMATIKO DESBERDINAK DAGOZKIO GAITASUN BAKOITZARI

Aipatu lau gaitasunak hizkuntzaren erabilpenaren beste lau egoera soziali egokitzen zaizkie: alde batetik, ahozko egoerak eta idatzizkoak bereiztu ahal dira; hortxe ditugu, besteik, ekoizte-egoerak eta jasotze-egoerak. Azken hauetan, hizkuntza jaso egiten da, hala nola irakurtzean, irratia eta telebista entzutean, hitzaldietan, ikasgeletan, ...

Egia esango bada, badira egoera berezi batzuk bietarik dutenak: apunteak hartzea, transkripzio baten irakurtzea eta harenaldi bereko entzutea, hitzaldia entzutea apunteak aurrean ditugularik, laburpenak egin beharra, oharra, etabar. Elkarriketaren kasuan, hitzuna jaso eta ulertu egin behar du, eta baita ekoiztu ere; hala ere, bi alderdi horiek txandaka datoz ia beti, eta hala sozialki nola kognitiboki banatuak agertzen dira. Elkarriketaren egoera berezitasuna ekoizpenaren muga-baldintzetan datza batez ere, testu kohesionatu eta koherentea amankomunean gauzatzean.

Normalean eta jeneralean, lau gaitasunok funtzionamendu independentea erakutsi ohi dute, zeregin pragmatiko banatan agertzen direlarik. Zentzu honetan, zeregin komunikatiboa kategorizatzen lagun diezagukete:

a) Alde batetik, *ulermenari dagozkion rol sozialak eta adierazpenari dagozkionak* bereiztu/kategoriza ahal ditugu.

Bezeroa izan edo merkataria, administrazioko langilea edo administratua, irakaslea edo ikaslea, ... hizkuntz erabiltzaileak ez ditu, idatzian zein ahozkoan, **hitzegintza berberak** gauzatu behar. Espresio molde (espresaera) desberdinak emango dituzte, erreferentzia desberdinak, auto-irudikapen diferenteak egingo, argudiatze era dibertsoak bideratuko, ... Eta molda-molde horiek desberdinak izaki, diferenteki mugatzen dute hiztuna.

Rol sozial bakoitzak jakintza-multzo jakinak eskatzen ditu, egiten-jakite sozial zehatzak, linguistikoak zein kulturalak.

Kontuan hartzekoa da, beraz, ulermenerako eta ekoizpenerako **rol sozialen disimetria** hori. Ulermenari dagokionean, bestalde, hiztunak menderatu beharko dituen rol sozialak eta

zeregin komunikatiboak ekoizpenekoak baino askoz ere ugariagoak eta dibertsifikatuagoak izango dira, bizi den ingurune sozialak halaxe eskatzen baitio.

b) Bestetik, *idatziari eta ahozkoari dagozkien rol sozialak* ere desberdinak dira elkarrekiko.

Hortxe ditugu, esaterako, ahozkoari eta idatziari dagozkion desberdintasun soziolinguistikoa, funtzio desberdinak egokitzen baitzaizkie, eta, beraz, diskurtso mota eta erregistro desberdinak ere bai. Horrenbestez, bi mundu edo esparru komunikatibo desberdinez mintza gaitezke, eta jakintza pragmatiko eta kultural desberdinak egokitzen zaizkio euretariko bakoitzari.

3.1.3. HIZKUNTZ KODEAREN ERABILERA DESBERDINAK

a) Ulermenaren eta adierazpenaren arteko desberdintasunak

Entzuleak eta irakurleak batez ere hitzetara jotzen du bere ulermena gauzatzeko. Horrek esan nahi du hizkuntz erabiltzaileak, ulertzaile edo irakurle den neurrian, lexiko mailan jartzen duela arreta, besteak beste hitzen esanahian, eratorpenean, transformazioetan, hitz elkarretan, ... Gramatikako alderdi batzuek beste batzuek baino pertinentzia handiagoa dute, esaterako, denborazko adberbioak, galdera adierazpenak, ezezpenak, modalitateak, kontuan hartze enuntziatiboak, zalantza eta duda adierazteko mekanismoak, organizazio semantikorako erabiltzen diren unitateak, etabar.

Beste alderdi batzuek, ostera, esaterako, *bat-en* erabilerak, *batetan/batean*; *-ko/ren* bereizkuntzak, "*zein etxean* vs *zein etxetan* ", "*meditik* " vs *mediatik* ", "*kotxean* " vs "*kotxetz* ", "*urte askoan* " vs "*urte askotan* ", ... bereizketek, deklinazio mugatua/mugagabeak, aditzaren trantsitibotasunak, ergatibo markek, pertsona marka erredundanteak, aditzaren zenbait formek, zenbaitetan aditzaren morfologiak berak (osagai erredundanteak daudenean ("*atzo etorri-*"), ... askoz ere garrantzia txikiagoa izango dute.

Arreta gehiago egingo dio, ostera, jardunaren eta testuaren kokagune nagusia asmatzeari, hala nola, denboraren tratamendu orokorrari, berbaldiaren orientazioa nagusiari, hots, argudiozko ildoari, kontakizunaren kokatzeari, tonueraren asmatzeari (fikzioa, irrealtasuna, ironia...). Etabar.

Bestetik eta desberdinik getatzen da ekoizpenarekin. Hemen hitzen eta esaldien alderdi formalek berebiziko garrantzia dute, eta sistemaren arabera gauzatuak beharko dute egon. Gaitasun honetan aurrera egiteak automatismo morfologiko eta sintaktikoetan gero eta modu automatikoagoan erabiltzea esan nahi. Hau da, prozedurazko automatismoak lortu beharko ditu. Halaz ere, erabiltzaileari zilegi zaio stock edo multzo mugatu batez aditzera ematea, beti ere perifrasi eta itzulietara joaz.

Hizkuntz erabiltzaileak ulermenerako eskura behar duen errepertorio linguistikoa askoz zabalago behar du izan ekoizpenekoak baino; adierazterakoan bere golkora jo beharra du hiztunak; ulermenean, ordea, besteren hitzaldi eta testuak ditu aurrean, eta ez du hautapenik egiterik. Horrela, euskaldun batek jarrai dezake diskurtso politikoa, edo eguraldiaren berriak, edo pelikula bat, edo antzerki bat, edota kutsadurari buruzko txostena irakurri dezake; nahiz eta bere kabuz gauza ez den mota horretako testu edo diskurtsoak osatzeko, ez lexikoari dagokinean, ez fonetikari dagokinean, ezta forma/osagai sintaktiko, espresaera (fraseologia) eta egiturei dagozkinean ere.

Laburbilduz, morfosintaxia eta hizkuntz aldaerak alderantzizko erlazioan aurkitzen dira ulermenari eta ekoizpenari dagokien pertinentzian:

ulerkuntza ekoizpena	Morfosintaxia garrantzia txikiagoa garrantzia handiagoa	hizkuntz bariazioa/aldaera aldaerei lotuagoa gaitasun idiolektala (propioa) (erabilkera propioa)
-------------------------	---	---

b) Idatzia eta Ahozkoa

Gogorarazi besterik ez, ahozkoa eta idatzia, oro har, modu desberdinean aktuatzen direla, hala paradigma morfologikoei dagokionean, nola sintaxiari dagokionean, hiztegiari sor zaionean zein diskurtso motei dagokienean. Ahozkoak idatziak baino askoz ere aldaera gehiago du.

3.1.4. IKAS/IRAKASKUNTZARI DAGOZKION DESBERDINATASUNAK.

Hemen ere bada desberdintasunik. Esan daiteke, arinago aurreratzen dela ulermen kon-tuetan adierazpenezkoetan baino. Izan ere:

- Erabilitako hizkuntz material multzoa dexente handiagoa da ulermenean.
- Ulermenerako erabilitako hizkuntz formak askoz ere ugariagoak dira ekoizpenean ematen eta exigitzen direnak baino.
- Ezagutza erreferentzialak eta kulturalak ere askoz ugariagoak izan ohi dira ulerkuntzan adierazpenean baino.

4. DISKURTSO-ESTRATEGIA(K): HIZKUNTZAREN ERABILPENA ETA HIZKUNTZAREN KALITATEA NEURTZEKO IRIZPIDE NAGUSIA

Hitzaldi-estrategia nozioa tresna baliagarria gerta dakiguke hizkuntzaren kalitatea azter-tzeko eta erabakitzeko orduan. Aldian-aldean, kasuan-kasuko egokiera eta kalitatea erabaki-tzeko erraminta dugu. Kontzeptu horrekin, gramatika arauak egoera komunikatibo bakoitzak eskatzen duen hizkerarantz proiektatu daitezke. Edozein modutan, hizkuntzaren kalitatea haren erabileratik eta haren erreallitate sozio-historikoa aintzat hartuz gero zehazten da. Izan ere, nork, nori, zer, noiz eta nola: horien arteko lotura da diskurtsoa. Nozio hau argitzen, beraz, zertxobait luzatuko naiz, hemen esan nahi denaz entzulea jabeago dadin.

Hizkuntza zurbil eta biluzik dago bere horretan hiztegiaren eta gramatikan. Hitz baten adiera eta balioa, forma gramatikalen zentzua eta balioa, egitura sintaktiko batena, edota testu oso batena ezagutzeko testuaren katean lekutu behar dugu eta ikusi zer testuinguru duen, zertarako den, ... Hitzek, esaldiek, egiturek inguru bat baitute; eta berdin hitzaldi edo testu osoek. Eta leku batean egoki dena bestean zabarra edo apainegia izan daitekeen bezala, han aski adina zena motzegi dukegu hemen, eta alderantziz. Izan ere, diskurtsoetan, berbalitate-multzoetan gauzatzen da hizkuntza.

Diskurtsoak erabilpena esan nahi du, eta erabilpenaren arragoan –esperientzian– har-tzen dute kolorea eta sasoia hitzek, esaldiek, testuek ... Diskurtsoa baina, hizkuntza erabiltze-ko tradizioari lotuta dago. Diskurtsoa esatean hitzaldiaren “tramoia” osoaz ari gara, “muntaia” batez.

Diskurtsoan gaineko jakitateek esaten digute zein berbalitate mota aukeratu behar den, eta nola jardun. Komunikazio egoera bakoitzak (diskurtsoek) erabakitzen du zein testu mota aukeratu. Diskurtsoetan zabaltzen da hizkuntza, horra.

Diskurtsoak, berbalitateak ... ez daude norbanakoaren esku, hiztun banakoak ezin du, bere kabuz eta gogoak eman orduko, halakorik gauzatu. Hiztun-talde baten, hots, ohizko harreman-sare sozial finko bat osatzen duten hiztunen, etengabeko mintzajardunean/ekoizpenean oratutako fenomenoak izaten da, gehinetan, diskurtsoa. Memoria, esperientzia eta tradizioa da, eta ondorioz, praktikaren arian antzeman daiteke bere eragina. Ez gaueetik goizerako urrats bapatekoan. Horregatik diogu hizkuntzaren erabilpena **estrategikoa** dela.

Hiztunak berbaldien mugen eta barrutien jakitun izan beharko du: diskurtsoak hizkuntza praktikatzeko moduak dira, non modu horiek dagoeneko edukiaren osagaietarik ditugun. Horrela, batetik, hizkuntz praktika indibiduala legitimatua gertatzen da, eta bestetik, praktika sozialaren legitimitatea sendotzen du. Diskurtso orok, bada:

a) **Osoasun testual** bat eskatzen du, hots, zerbait osoa behar du izan.

b) Indibidualtasun absolutua, etena eta trangresioa baino gehiago nolabaiteko **konbergentzia** erakusten du: taxuerak, egituratze-modu jakinak, enuntziatio-erregulartasunak, ...

c) Iskribatzea eta ahoskatzea baino gehiago **erredakzioa** eta **berbaldia** da.

Gorago esan bezala, "berbalitate" edo diskurtsoetan banatzen da hizkuntza. Maiz esan da hizkuntza zirkulu kontzentrikoetan banatzen dela: etxeko hizkuntza —> lagunartekoa —> hirikoa —> hizkeltia (euskalkia) —> estandarda. Edota hiztun berriei dagokienean, oinarritzko hizkera bat legokeela pentsa liteke, oinarritzko gramatika bat, beti ere zirkulu kontzentrikoen antzera hedatuz joango dena, eremu berria(goa)k ta espezialduak bereganatuz.

Hipotesi horrek badu, gure ustez, zer zuzendu. Edota zer osatu, zeren uste baitugu "hizkuntzaratzea" beste modu batean ere egiten dela. Azken batean, zer dira erabilkerak? Tradizioa, erritualak, enuntziatio-erregulartasunak, enuntziatio-prozedura egonkorak, "tramoia" propioak. Erabilkerak bere gainak dira, badute nolabaiteko autonomia/izaera propioa. Ikuspuntu linguistiko batetik, zer da "ipuinak"? Zer da "erreseina"? Zer da txostena? Zer da editoriala? Zer da ... Gehiago oraindik: hizkuntz erabilkera horiek hiztun-talde jakin bati lotuak daude, esan nahi da, giza-talde batean dutela abiapuntua eta aplikazio-eremua (kontsumo-barrutia). Horrela gauzak, "editoriala" ez da "ipuinaren" luzapen kontzentrikoan kokatu ahal.

Esandakoaren argigarri, adibide batzuk emango ditut.

a) Esaldi kausaletara eta, zera esan ohi zaio ikasleari: kausa-ondorio erlazioa adierazteko era desberdinak daude. Hona adibidea:

"Egun osoan ikastolan aritu behar dugunez, ezingo dugu beste ezer egin."

Ondoren, adibide horretan adierazitakoa beste era askoatarara ere esan daitekeela ghituko zaio:

"Ezingo dugu beste ezer egin, egun osoan ikastolan aritu behar **baitugu**.

Ezingo dugu beste ezer egin, egun osoan ikastolan aritu behar dugu **eta**.

Egun osoan ikastolan aritu behar dugulako, ezingo dugu beste ezer egin.

Egun osoan ikastolan aritzeagatik, ezingo dugu beste ezer egin."

Hori alderdi sistematikoari dagokienean, zeren alderdi komunikatiboei dagokienean, goiko azalpen hori baliorik gabe geratu ahal da: ondotxo dakigu esaldi horiek ez dira baliokideak, horien **jatorri edo abiaburu diskurtsiboa** desberdina delako hain zuzen ere. Aztertu besterik ez dago kausa adierazle horien presentzia, maiztasuna, banaketa eta funtzioa beren desberdintasunez oartzeko. Esan nahi dut, modu desberdinean "kontsumitzen" direla, "mer-

katu" desberdina dutela: abiapuntu eta aplikazio-eremu desberdinak. Sisteman bai agian (egibaldio bera?), baina errealtatean ez dira trukagarriak (balio komunikatibo desberdina). Are: testu-zientifikoetan, eta zientzilariek buruz buru dihardutenean, hots, ekomunikazio esoterikoan, bestelakoa da kausaltasunaren adierazpen modua, hau da, abiaburu diskurtsiboan, hura aditzen bitartez, edota testuaren egitura medio gauzatzen baita. Hona zenbait aditz: *eragin, sortarazi, ekarri, bide eman, bultzatu, erraztu, X-en rola Y da, oratu, egokitu, horrela uler daiteke ...* "; beste batzuetan, hipotesiak egiten dira, emaitzak argitu, honako honek harako hura argitzen duela" gisako moldeak erabiliz.

Horrela bada, kausaltasuna, eta kausa adierazleak, testu generoen eta diskurtso moten arabera argitu beharko dira. Esan nahi da, nahiz eta sistema estandarra baliatu, kausaltasunaren adierazleak desberdinak izan daitezkeela.

b) Demagun, artikulua zientifiko orijinal bat idatzi nahi duela hitzunak, komunikazio bat, adibidez. Jakin beharko du, holakoetan IMRAD (Introducción (sarrera), Material y Método (corpus eta metodologia), Resultados (emaitzak), Discusión (Eztabaida) egitura orokorra errespetatu beharko duela. Bestela, haren testuak ez du inolako pertinentziarik eta, beraz, "kalitaterik" izango.

Era berean, beste enuntziatio-arau honi ere eutsi beharko dio ekoizleak: aditzkera inpersonalak, usteerakoak (ondoriozkoak) eta "gu" ("*uste dugu, gure azterketa, lan, estudio honetan* ", ... gisako formak batez ere Sarreran eta Eztabaida urratsetan eman beharko ditu. Arrazoiak simple da: bi urrats horietan agertzen baita publikoa konbentzitzeko eta informatzeko argudio-bilbea. Agertu beste fase batzuetan ere ager daitezke, baina beste funtzio batekin, justifikazio-operazioetarako hain zuzen.

c) Testuak gauzatzekoan, askotan gertatzen da aurretik agertua den elementu bati geroago, ondorengo esaldietan eta testu zatietan, erreferentzia egin beharra. Erreferentzia hori modu ezberdinetara egin dezake hitzunak. Esango da, besteak beste, errepikatu nahi ez ditugun unitateen ordainak edota ordezkioak direla adierazpen anaforikoak, eta horiek baliatuz testuari arintasuna, aberastasuna, etabar eman ahal zaizkiola. Zenbait diskurtsotan, ostera, beste "arau" batek agintzen du.

Esango zaio erabiltzaile arruntari, errepikapen hutsa ekiditeko sinonimiara jo dezakeela. Honela:

"XIX. mendearen bukaera aldera agertu ziren lehen **berebilak**. Hasieran oinezkoak ikarutzen zituzten **ibilgailu** zaratsatu eta ketsuak ziren, baina **automobil**en hobekuntza aurreratzen zihoan neurrian, jendeak gainditu egin zuen hasierako izua. Denborarekin ekonomiaren ardatzetako bat bihurtu da da **autoa** edo **kotxearen** industria.." (A. Alberdi, *Eskola Gramatika*, EIKAR-GIE, Donostia, 1996, 48.or).

Eta alderatu administrazio-hizkerarako (= diskurtsorako) ematen den beste gomendio honekin (dagoen bestean, azalpen eta guzti jasotzen da):

"*Beti izen bera erabili pertsona edo gauza bera adierazteko.*

Ikusi segidako testua:

Oharra: **Interesdun**ek x- egunez izango dute *azterketa*. *Ariketak* egin eta hamabost egun geroago emaitzen berri postaz jasoko dute **izangaiek**. *Froga* gainditu duten **azterketari**ek x- agiriak aurkeztu beharko dituzte lanean hasi aurretik.

*Hori irakurrita, inork pentsa lezake pertsona ezberdinak direla **interesduna, izangaia** eta **azterkataria**, eta gauza ezberdinak, halaber, **azterketa, ariketa** eta **froga**. Haiek eta hauek izen desberdinez agertu izan direnez gero.*

Horregatik, gure ustez, hobe da hitzak errepikatzea (horri ihes egiteko beste modurik ez bada), izen ezberdinak erabiliaz irakurleari nahasmendurako bidea ematea baino. Aurreko kasua era honetan idatziko genuke, horrenbestean:

Oharra: **Azterkatariek** x- egunez izango dute *azterketa*, emaitzak hamabost egun geroago jasoko dituztelarik. *Azterketa* gainditu duten **dutenek** x- agiriak aurkeztu beharko dituzte lanean hasi aurretik." (J. Eizagirre, *Administrazioa euskaraz*, 6. zenb. 1994eko urria, 19.or)

d) Esaerak, zuhurreak eta bitxienak izanda ere, beti ez dira erabilgarriak. Esaerek badute beren non-noiztasuna eta beren diskurtso-guneak ere. *Ura joan eta gero presa egin*" moduko esaera bat, esaterako, oso egokia izango zaigu zenbait diskurtso-estrategiatarako. Hizkera batzuetan ez du nolako presentziarik. Zein ere den esaera baten esanahia, distribuzio eta funtzio zehatzak izan ohi ditu, mugapen diskurtsiboen araberakoak. Diskurtso (testu-*era*) batzuetan beste batzuetan baino gehiago "kontsumitzen" dira. Esaterako, ahots desberdinak sortzeko, generalizazioak egiteko, diskurtso heterogenoak bideratzeko, ... Honela: "Baten batek esan lezake hori gurdia idien aurretik jartzea dela. Baina, ... ". Ipuinetan, ordea, osai estetikoa, kulturala zein bultzagarria izan daiteke. Edota, kodarena egin lezake.

e) Aipamenak, adibideak ..., horiek ere **jatorri diskurtsiboa** izan ohi dute.

Noiz ekarri? Zer adibidetu? Zertarako? Zer ekarri adibide gisa? Ez da batere erraza adibideak sortzea. Arrazoi bat baino gehiago dago hor tarteko: batetik, jakin behar da zer funtzio betetzen duen adibideak, halanola, argudio baten aurkako datu zehatza eskaintzea, esaten denaren kasu enpirikoa ekartzea, ilustrazioa, zerbaitetarako eredia edo ejarraibidea eskaintzea, .. Bigarrenik, argigarritzat eman ohi diren adibide guztietan, bi alde bereiz daitezke: batetik, zeren adibide den; bestetik, zein den adibidearen beraren edukia. Eta horietan guztietan, beti ere erabaki diskurtsibo-pragmatikoak dira erabakiorrak.

f) Testu juridiko-administratiboetara eta, luzaz ekingo beharko diozu honako adierazpide modaltzailereren bat aurkitu gura badozu: "**ukaezina da, zalantzarik gabe, iruditzen zait, argi dago, itxura denez, bistan dago, egia osoa esan behar bada, ..**". Arrazoa sinplea da: lege-eta administrazio-hizkeran ez da zentzuaren "negoziaketarik" egiten, lege eta administrazioko objektuak ez dira herritaren jokoan moldatuen; horregatik, normalean ez dugu kontzesiozko zirkuitorik aurkitzen ahal administrazioko testuetan. Era berean, nekez aurkituko dugu elementu eta estrategia biformulatzaileak ere.

Horregatik guztiagatik, hizkuntz elementuen **existentzia** ezeze, haien maiztasuna, banaketa eta batez ere funtzioa (sintaktikoa, estilistikoa, testuala, argudiozkoa, ...) hartu behar dira kontuan. Osagaien aldaerak, gainera, maila guztietan aurki daitezke: fraseologia mailan, maila sintaktikoan, lexikoan, testu-mailan, maila erretorikoan, argudiozkoan, antolatze-mailan, ...

5. ZENBAIT ONDORIO HALA HIZKUNTZEN IKAS/IRAKAKUNTZARI DAGOKIONEAN ZEIN KALITATEAREN IKERBIDEARI DAGOKIONEAN

Hizkuntz erabilzaile guztiek ez dute hizkuntza eremu guztietan neurri berean menderatzen. Beraz, bidezko deritxot trebatze espezifikoak kontuan hartuz geroko pedagogiari. Espezialtze hori, jakina, helburuei dagokienean ulertu behar da; ariketak egin-jakitate bati gauzatuak leudeke. Gure egoeran euskara kontsumitzaile "pasiboak" ere sortzeari ez deritxot gaizki. Euskara bidean eta oraingoz, nik neuk ontzat joko nuke, batek euskaraz egin eta solaskideak gaztelaniaz ematea erantzuna. Era berean, solaskidearen ulermen maila frogatu nahiez gero, erantzuna idatziz eman beharra larria iruditzen zait.

Ildo beretik, egoki iruditzen zait ahozko ekoizpenerako zein idatzirako ahalik eta eredu pertinenteenak eskuratzea. Demagun gabeziatariko bat hitz-jariorik ezarena dela. Zertan datza baina hitz jario hori? Hitz-jarioa, funtsean, badirudi "prozeduralizazio" baten emaitza dela, hots, automatizazio baten ondorioa. Kontua, beraz, ez da gehiago jakitea, dakiena gehiago automatizatzea baizik. Hori ere hizkuntza ikas/irakaskuntzan kontuan ihartu beharreako da.

Hizkuntzaren kalitatea –eta ondorioz, ikas/irakaskuntzarena– zehazteko eta erabakitze-ko, oso aintzakotzat hartzekoak direla **hitzaldi-estrategiak** esan dugu, hizkera-maila desberdinen oinarri eta bide direla uste baitugu.

Horregatik, kalitate egokia kalitate malgua da, hizketa egokia bezalaxe. Malgutasuna, dena den, ez da subjektibitate hutsa. Kalitatea malgua, irekia, dinamikoa dela esatean ez da esanahi edozein ekoizpen, edo hitzaldi oro, egokitzen eta kalitatekotzat eman behar denik. Diskurtsoak, gorago esan bezala, ez dira hesi gabeko hizkuntza praktitze-moduak, alderantziz baizik.

Beharrezkoa da hitzaldien zerrenda eta norma izatea; norma horrek lagun diezaiguke kalitatearen izaera eta mailak zehazten eta erabakitzen. Besteak beste, berbaldirantz proiektatu beharra daukagu gramatika, hura berbaldiaren zerbitzura jarri beharra hain zuzen.

"**Hizkuntza eleaniztunerako bide berriak**" da iharduera hauen izenburua. Nago berrikuntza hizkuntza ikasteko teknologia berrien ildotik doala batez ere. Hananola, ariketa berriak, teknologia berrien erabilpena eta aplikazioa, ... Onenean ere, adierazpen teknikak zaintzea, testu-mota sozialen presentzia handiagoa, testu-motei egindako zenbait erreferentzia, ... Ikuspegiez den bezainbatean, lehengo lepotik dugula burua esan daiteke, edota ezer gutxi aldatzen dela.

Bestalde, zein izango da ikas/irakaskuntzaren "nukleo gogorra" edo gune finkoa, hau da, azken batean zein izango da irakaslearen eskuliburua? Esaldian oinarritutako gramatika paradigmakoa? Eskuliburu horretan zer rol izango dute hizkuntzaren alderdi sistematikoek eta zein alderdi komunikatiboek? Kalitatea begiz joa dugun garai honetan, nola jokatu da kalitatea hori eskuratzean? Gramatikako alderdi gehiago lortzera mugatuko ete gara? Zer material baliatuko dugu?

BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, A. (1996), *Eskola Gramatika*, D.B.H. ELKAR-GIE, Otsadar, Donostia 285-297. or.
- AMURIZA, X. (1997), "2100. urteko euskara", *Egin* 1997/1/25.
- AMURIZA, X. (1997), "Ikasleen euskara", *Egin* 1997/1/24.
- ARZAMENDI, J. (1995), "Calidad de educación y bilingüismo", in Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, *La calidad de la Educación*, Cuadernos de Sección-Educación, 8, Donostia, 1995, 73-83. or.
- BERASATEGI, M. (1997) "Porrota euskaltegian", *Hizpide*, 38. zenb., 20-32. or.
Cuadernos de Pedagogía, 237. zenb.
- CARTON, F. (1996) "L'apprentissage différencié des quatre aptitudes", in *Verbum*, 1/1995-1996, 63-74.or.
- CHAROLLES, M. (1986) "L'analyse des processus rédactionnels: aspects linguistiques, psychologiques et didactiques", in *Pratiques*, 49, 1986.

- Egunkaria: "Euskara batua eta hizkuntzaren kalitatea", mahai ingurua J. Garzia, A. Sagarna eta B. Oihartzalekin, *Egunkaria* 1998.1.11.
- ESPERET, E. (1990) "Apprendre à produire du langage: construction des représentations et processus cognitifs", in *Le Français dans le Monde. Recherches et Applications: Acquisitions et utilisations d'une langue étrangère, l'approche cognitive*, fév.-mars 1990, 8-10.or
- ETXAGUE, X. (1995) "Hezkuntzaren kalitatea eta elebitasuna", in Eusko Ikaskuntz Sociedad de Estudios Vascos, *La calidad de la Educación*, Cuadernos de Sección-Educación, 8, Donostia, 1995, 85-113 or.
- ETXEBARRIA, J.L., (1993), *Euskara jatorraren hildotik*, Txiguia, Lazkao.
- Euskal Herriko Ikastolen Elkarte, (1996), Pedagogi Plan Nazionala. Ikastolen III. (1995) Batzarra. Eztabaidarako Txostena. *Ikastola* 49. zenk. (monografikoa).
- Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos (1995) *La calidad de la educación* (lankide.), Cuadernos de Sección-Educación, 8, Donostia.
- EZEIZA, J., LEKUONA, M., ALTUNA, E. (1995), *Esalditik Testura*, Gaiak, Donostia.
- Euskal Herriko Ikastolen Elkarte, (1996), "Joxean Barreiro, enpresa-gestioan aditu bat ikastolan". *Ikastola* 53. zenb.
- FAYOL, M. SCHNEUWLY, B. (1986) "La mise en texte et ses problèmes", communication au 3^e Colloque International de didactique du français, Namur, 2-4 sept. 1986.
- FOULIN ET AL. (1989) "Approche en temps réel de la production des conneteurs et de la ponctuation: vers un modèle procédural de la composition écrite", in *Langue Française*, 81, 1989.
- Fundación Vasca para el Fomento de la Calidad. Kalitatearen Sustapenerako Euskal Irskundea. (1994), "La Calidad Total como elemento estratégico para mejorar la capacidad competitiva".
- GARCIA, I. y LARRINGAN, L.M. (1997) "Una propuesta de valoración de textos bilingües a través de textos narrativos", I Simposio Internacional sobre o Bilingüismo, Vigo, 21-25 de outubro, 1997.
- GOIKOETXEA, N. (1997), "Gazteak eta euskararen erabilera urria. Debako kasua." *Hizpide*, 38, 3-19.
- GREMMO, M.J., HOLEC, H. (1990) "La compréhension orale: un processus et un comportement", in *Le Français dans le Monde Recherches et Applications: Acquisitions et utilisations d'une langue étrangère, l'approche cognitive*, fév.-mars 1990, 8-10.or
- IDIAZABAL, I. & KAIFER, A. (edi.) (1994) *Eficacia educativa y enseñanza bilingüe en el País Vasco*, IVAP/HAEE, Bilbo.
- IDIAZABAL, I. y LARRINGAN, L.M. (1995), "Transfert de maitres discursives dans un programme d'enseignement basque-espagnol". *Adquisition et Interaction en Langue Étrangère* (AILE), Engrages, 10. zenb. 1997, Barcelona, 107-125.
- MAURI, T. (1994) "Las tareas de los grupos de intervención en la elaboración de proyectos curriculares". *AULA*, 27.
- MENDIGUREN BEREZIARTU, X. "D' ereduaren aurrerapena dela eta", *Egunkaria*, 1995.9.21
- MURUA, I. (1997), "Kalitatea gure esparruan", *HIZPIDE*, 38. zenb., 85-103.
- PÉREZ JUSTÉ, R., MARTINEZ ARAGON, L. (1989), *Evaluación de centros y calidad educativa*, Madrid, Cíncel.
- SALABURU, P. y KINTANA, X., (1994) *Euskara hobean hobe*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua/Servicio de Publicaciones de la Universidad del País Vasco, Bilbo
- ZALBIDE, M. (1996), "Eskola hiztun bila", *Hik Hasi*, 9. zenb., 12-15.or.